AKTEA

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2018-06-25)

Bilkurea:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Datea:	2018-06-25 (Astelehena)
Lekua:	GIZARTE ETA KULTURA ETXEKO BATZAR GELEA
Hasiera-ordua:	09:00
Amaiera-ordua:	10:00
Lehendakaria:	BIDEGUREN GABANTXO IDURRE
Batzordekideak:	IBARROLAZA MUNITIZ BENITO ORMAETXEA LEGARRETA IRUNE BILBAO URIARTE NAIA AGIRRE SANTAMARIA JUAN CARLOS ELORZA ELORTEGUI MARIA AMAIA ASTUI ZARRAGA AINGERU
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA

Aztergaiak

1. - Aurreko aktea irakurri eta onestea

2. - Albacora SA enpreseak eraikitako bulego eta aparkalekuen eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia emotea.

3. - 2018ko diru-laguntzen deialdia onartzea.

4. - 2018 urtean, zirkua jartzea ez baimentzea.

5. -Formaziorako Aholkularitza, Prospekzioa eta Proiektu Estrategikoak burutzeko zerbitzua luzatzea (2018-2020) onartzea.

6. - Ekintzaileei eta enpresa sortu berriei zuzendutako Sare Sozialei buruzko taldeko formazioa eta banakako tutoretzak emateko gastua onartzea, xedatzea eta kontratua esleitzea.

7. - Udal azokako 5 zenbakidun mahaiaren titularidade aldaketea onartzea.

8. - Bermeori buruzko karpetak kaleratzeko kontratua esleitzea.

9. - Bermeo Tuna World Capital (BTWC) proiektuaren barruan, udarako pintxo ibilbide bat sortzea eta ekimena zabaltzeko planoak kaleratzeko kontratua esleitzea.

10. - Alkatetzearen dekretuen barri emotea

11. - Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoala ikusita, bilkura hasi dau eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dagozan gaiei heldu deutsoe. Emoitza honakoa izan da:

1. - AURREKO AKTEA IRAKURRI ETA ONESTEA

2018ko ekainaren 18ko aktea irakurrita, bertaratutako batzordekideek aho batez onartzea erabagi dabe.

2. - ALBACORA SA ENPRESEAK ERAIKITAKO BULEGO ETA APARKALEKUEN ERAIKINAREN LEHEN ERABILERARAKO LIZENTZIA EMOTEA.

Xedea

Albacora SA enpreseak eraikitako bulego eta aparkalekuen eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2014ko uztailaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi eban Albacora SA enpreseari Landabaso Industrialdeko bulegoak handitzeko lizentzia emotea.

Bigarrena: 2018ko otsailaren 7an Albacora SA enpreseak eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia eskatu eban.

Hirugarrena: 2018ko otsailaren 8an udal arkitektoak txostena egin eban eta dokumentazino osagarria aurkezteko eskatu jakon.

Laugarrena: 2018ko ekainaren 8an Albacora SA enpreseak dokumentazinoa aurkeztu eban.

Bosgarrena: 2018ko otsailaren 12an Ingurumen teknikariak txostena egin eban, jarduera espedientea onartu zan eta espedientea amaitutzat emon zan.

Seigarrena: 2018ko ekainaren 13an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Zazpigarrena: 2018ko ekainaren 14an Urigintzako AOTk txostena egin eban.

Zortzigarrena: 2018ko ekainaren 14an Urigintzako AOTk erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Bakarra: Albacora SA enpreseak eraikitako bulego eta aparkalekuen eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia dala-eta, ingurumen teknikariak 2018ko otsailaren 12an eta udal arkitektoak 2018ko ekainaren 13an egindako aldeko txostenak ikusi dira eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207.1 r) eta 210 artikuluak kontuan hartu dira. Aurrekoetako kontuan hartu da eta beraz lehen erabilerarako lizentzia emon daiteke.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Albacora SA enpreseak eraikitako bulego eta aparkalekuen eraikinaren lehen erabilerarako lizentzia emotea.

BIGARRENA: Interesdunari eta Urigintza Sailari erabagi hau jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

3. - 2018KO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA.

Xedea

2018ko diru-laguntzen deialdia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurak, Bermeoko Udaleko 2018/2021 diru-laguntzen plan estrategikoa onartu eban, lehenengo pauso moduan bertan agertzen diran diru-laguntzen baldintza zehatzen fitxak onesteko.

Bigarrena: 2018ko ekainaren 21ean kontu-hartzaileak txostena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: 2018. urteko jarduerak finantzatzeko diru-laguntzen programeak 38/2003 Diru-Laguntzen Legearen 2.1 artikulua betetzen dau. Honako hauek hartzen dira kontuan: programa horreen bidez prestazino zuzenik ez aurreikustea, alkarteen proiektuak edo ekintzak diruz laguntzea eta interes sozialekoak izatea.

Bigarrena: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.artikuluaren 2. atalak honakoa xedatzen dau:

> *"Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos en esta Ley".*

Hirugarrena: Bete beharrekoak kontu-hartzailetza honetan finkatuta geratu dira eta espediente guztiek betetzen dabez.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 2018ko diru-laguntzen deialdia onartzea. ERANTSITA

BIGARRENA: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta diru-laguntzen datu base nazionalean publikatzea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4. - 2018 URTEAN, ZIRKUA JARTZEA EZ BAIMENTZEA.

Xedea

2018. urtean zirkua jartzeko ez baimentzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2017ko ekainaren 20an, Circo Hermanos Rossi SLk 2018. urtean Bermeon zirkua ipintzeko eskaria egin eban.

Bigarrena: 2018ko martxoaren 2an I.G.L. jaunak 2018 urtean Bermeon "Gure zirkua" izeneko zirkua ipintzeko eskaria egin eban.

Hirugarrena: Circo Hermanos Rossi SLko ordezkaria, R.P. jauna, eta I.G.L. jauna alkarregaz etorri ziran Bermeora "Gure zirkua" izeneko zirku proiektuari buruzko azalpenak emoten.

Laugarrena: 2018ko apirilaren 18an egindako Kultura eta Hezkuntza batzordean, hurrengo Kultura eta Hezkuntza batzordean Bermeon zirkua jartzeko oinarriak aztertzea proposatu zan baina beti be, urtean zehar Bermeon zirku bakarra izateko baldintzapean.

Bosgarrena: 2018ko ekainaren 19an Kulturako teknikari-koordinatzaileak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: 2018ko maiatzaren 2an egindako Kultura eta Hezkuntza batzordean 2018 urtean zirkua jartzeko baimena esleitzeko administrazino-baldintza zehatzen orriak proposatu ziran.

Bigarrena: 2018ko maiatzaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018 urtean zirkua jartzeko baimena esleitzeko proposamena mahai ganean itzi eban, kokapenaren zalantza dala-eta.

Hirugarrena: 2018an Burujabetasun zelaia obratan dago, korrikalarientzako pista bat egiteko obrak dagozalako eta honez gain, tirolina bat be jartzeko obrak hasiko dira.

Laugarrena: Hori dala-eta, 2018 urtean ez da ikusten egoki zirku bat jartzea leku horretan dagozan obrengatik.

Bosgarrena: prozesu honen atzera egitea, Administrazino Publikoen Administrazino Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarritzen da, 93. artikuluan. Bermeoko Udala eraikitzen ari dan atletismo pista eta tirolina instalatzea onuragarria da herritar guztientzat, horregaitik lan horreek lehentasuna daukie. Zirku baten instalazinoa interes pribatuari jagoko. Aurten, ezinezkoa da zirkua jartzea atletismo pistaren lanek irauten daben artean. Iinteres publikoa interes pribatuaren aurrean jarri behar da.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 2018. urtean Burujabetasun zelaian zirkua jartzea ez baimentzea, obrak diralaeta.

BIGARRENA: 2019. urteari begira, zirkua jartzeko baldintzak finkatuko dira eta zirkua non ipini zehaztuko da.

HIRUGARRENA: Interesdunari eta Kultura Sailari erabagi hau jakinaraztea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

5. - FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA, PROSPEKZIOA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK BURUTZEKO ZERBITZUA LUZATZEA (2018-2020) ONARTZEA.

Xedea

Formaziorako Aholkularitza, Prospekzioa eta Proiektu Estrategikoak burutzeko zerbitzua luzatzea (2018-2020) onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Formaziorako Aholkularitza, Prospekzioa eta Proiektu Estrategikoak burutzeko zerbitzuaren esleipena, Daiteke Careers Jobs S.L." enpresari egin zitzaion, 2016ko abuztuaren 4an, 656. Zenbakidun Alkatetza Dekretuz.

Bigarrena: 2016ko abuztuaren 5ean, zerbitzu kontratua sinatu zen urte birako. Hain zuzen ere, 2018ko abuztuaren 7ra arte.

Hirugarrena: Zerbitzu kontratuaren Klausula berezietako 2. Artikuluan (Kontratuaren iraupena) hurrengoa adierazten da: " Kontratu hau, abuztuaren 8tik hasita, urte bi(2)rako da, beste horrenbestez luzatu daitekeena alde biak ados agertzen badira."

Laugarrena: 2018ko ekainaren 21ean Behargintzako zuzendariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Formaziorako Aholkularitza, Prospekzioa eta Proiektu Estrategikoak burutzeko zerbitzuaren helburuak honako hauek dira, nagusiki:

*FORMAZIORAKO AHOLKULARITZA, Behargintza zabaldu zenetik ematen den zerbitzua da, gure erabiltzaileen enplegagarritasunerako, txertaketarako eta hobekuntza jarraiturako oinarrizko zerbitzua.

Formazioak berebiziko garrantzia du, norberaren gaitasun profesionala hobetzeko eta enpresek egun dituzten beharrizanei aurre egiteko. Lan bila dabilenari zuzendutako **aholkularitza zerbitzua banakoa da**, norbere formakuntzaren gaitasunak eta eskasiak kontuan izanik laneko profil konkretu batera egokitzeko orduan.

Bestalde, lan merkatuko eskariaren nondik- norakoa (prospekzioaren bitartez) eta bertaratzen diren talde (elkarte, enpresa etabar) guztien beharrizan eta arazo bereziak aztertzen dira. Horrek bidea ematen digu **aholkularitza zerbitzuan formakuntzako ekintza planak ere diseinatzeko, gure erabiltzaileei zuzendutakoak zein enpresen beharretara egokitutakoak.**

*KOLABORAZIOA PROSPEKZIOAN, Behargintza bezalako tokiko garapen agentzia baterako behar beharrezko zerbitzua da. Enpresetara hurbiltzen gaitu, euren beharrizanak zeintzuk diren jakiteko, gure eskualdeko enpresa sarea zein den jakiteko.

Gure enpresen egoera, euren beharrizanak eta etorkizunerako asmoak zeintzuk diren ezagutzen uzten digu eta horrela agentziatik euren lehiakortasuna areagotzeko jarduerak diseinatu ahal ditugu. Ze jarduera lerrotan ari diren eta izan ditzaketen gabeziak zeintzuk diren jakiteak, informazio erabakigarria ematen digu etorkizunerako enplegu edo auto-enplegu hobiak ezagutzeko orduan eta balizko lanpostu horiek betetzeko neurriak hartzerakoan. Prospekzioa indartzea estrategikoa da gure Agentziarako.

* PROIEKTU ESTRATEGIKOEN KUDEAKETA gaur egun Behargintzatik garatzen ari direnak, Busturialdeko egoera sozioekonomikoaren diagnostiko batekin hasi ziren egitasmoak dira, Gernikako garapen agentziarekin lankidetzan. Biek hartzen dituzte barnean egitasmoak egin eta euron kudeaketan aktiboki parte hartzen dituzten herri guztiak.

2012tik 2017 urtera bitartean, urtero, Eskualdeko Planetarako laguntzak argitaratu dira eta Bermeoko Udala izan da nagusiki eskatzaile, kudeatzaile eta dinamizatzailea. Plan hauek sektore jakin baten diagnostikoa ahalbidetzeaz gain, eskualde osoak batera lan egin eta eskualdeko garapen ekonomikoan sartzeko aukera eman du.

Eskualde mailan ezezik, udal mailan ere, eskatzaile, kudeatzaile eta dinamizatzaile izan da Bermeoko Udala.

Aipatzekoa da, Proiektu Estrategikoen Kudeaketa, bai Prospekzioa baita Formazioko Aholkularitza oso lotuta daudela.

Bigarrena: Goian aitatutako guztiari jarraipena emon behar zaio, hain zuzen ere, aurreko urteetan burututako prospekzioaren ondorioz detektatu diren gabeziak zuzentzeko ekintzei jarraipena emon eta akzio plan barriak egin eta landu beharko dira.

Besteak beste, merkataritza eta ostalaritza dinamizatu, bai ikastaroen bitartez, baita proiektu ezberdinekin (Bermeoko Bonoa, Renova proiektua…etabar. Ahaztu barik prospekzioaren ondorioz ikusitako beharrizana, langabetuei eta langileei zuzendutako ikastaroen plangintza.

Bestetik, merkatu plaza dinamizatzeko ekintzak. Hau da, lehenengo sektoreari lotuta, plangintza estrategiko bat landu eta ekintza zehatz batzuk aurrera eraman. Kontuan hartuta, lehenengo sektoreko ekoizleak eta Bermeoko biztanleak.

Azkenik, industria-guneko enpresei zuzendutako ekintza ezberdinak, beraien lehiakortasuna areagotzeko helburuarekin.

Etengabe, proiektu berrien kudeaketarako, diru laguntzen informazioa bilatzeari eta memoriak prestatzeari utzi gabe.

Hirugarrena: Daiteke-Careers Jobs S.L. enpresarekin izandako esperientzia oso baikorra izan da eta zerbitzua kalitatezkoa izan da. (hau hirugarren argudio moduan ipini, ez erabagian…)

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Formaziorako Aholkularitza, Prospekzioa eta Proiektu Estrategikoak burutzeko zerbitzua luzatzea (2018-2020) onartzea bi urtetarako. Hau da, 2018ko abuztuaren 8tik 2020ko abuztuaren 7ra arte.

BIGARRENA: Esleipendunari eta Kontu-hartzailetzari erabagi honen barri emotea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

6. - EKINTZAILEEI ETA ENPRESA SORTU BERRIEI ZUZENDUTAKO SARE SOZIALEI BURUZKO TALDEKO FORMAZIOA ETA BANAKAKO TUTORETZAK EMATEKO GASTUA ONARTZEA, XEDATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Ekintzaile zein enpresa sortu barrientzako sare sozialei buruzko taldeko formazinoa eta

banakako tutoretzak emoteko gastua onartzea, xedatzea eta kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Sortuta dagozan enpresa edo ekintzaileei zuzendutako formazinoa eta tutoretzak dira. Sare sozialen atala landuko da.

Bigarrena: Formazino eta tutoretzen kontratazioan parte hartzeko gonbitea bialdu jako honako enpresa honeri: BURUTU COMUNICACIÓN S.L. . Proposamena bidali deusku. Aurrekontuaren zenbatekoa 854,16€-koa da (BEZa salbuetsita dauka). Danatara: 854,16€

Hirugarrena: 2018ko ekainaren 18an Behargintzako zuzendariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak beharrezko atxekipena dauka (2018/001745)

Bigarrena: Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.8, 63.4 eta 118. artikuluak.

Hirugarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2018ko martxoaren 5eko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 854,16 euroko gastua baimentzea, ekintzaile eta enpresa sortu barrientzako taldeko formazinoa eta banakako tutoretzak kontratatzeko eta indarreango 2017ko udal aurrekontu luzatuko -01000-43300-227.99.52 "Enpresa garapenerako kontsolidazio ikastaroak" partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Ekintzaile eta enpresa sortu barrientzako taldeko formazinoa eta banakako tutoretzak emoteko gastua onartu, xedatu eta BURUTU COMUNICACIÓN S.L. enpreseari (IFZ B95847968) lana esleitzea 854,16€-tan.

HIRUGARRENA: Esleipendunari eta Kontu-hartzailetzeari erabagi hau jakinarazotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

7. - UDAL AZOKAKO 5 ZENBAKIDUN MAHAIAREN TITULARIDADE ALDAKETEA ONARTZEA.

Xedea

2018ko ekainaren 11n J.A.L.Z. jaunari Udal Azokako 5 zenbakidun mahai finkoa eskualdatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: P.Z.A. andrea 1995ko martxoaren 1etik 5 zenbakidun mahaiaren esleipenduna da.

Bigarrena: 2018ko ekainaren 11n J.A.L. jaunak (bere semea) 5 zenbakidun mahai finkoa eskualdatzeko eskaera aurkeztu zuen.

Hirugarrena: 2018ko ekainaren 18an Behargintzako zuzendariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Bakarra: Eskabideagaz batera J.A.L. jaunak eskualdatzea egiteko behar dan dokumentazinoa guztia aurkeztu dau.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: J.A.L.Z. jaunari Udal Azokako 5 zenbakidun mahai finkoa eskualdatzea.

BIGARRENA: Udal azokan zerbitzuak emoteagaitik ordaindu beharreko tasea arautzen dauen ordenantza fiskalaren arabera, 430,86 € ordaintzea (4. EPIGRAFEA: Bizien arteko eskualdaketa 4.3.-3. modulua).

HIRUGARRENA: Interesdunari, Ekonomia Sailari eta Zerbitzu Sailari erabagi hau jakinaraztea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

8. - BERMEORI BURUZKO KARPETAK KALERATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeori buruzko karpetak argitaratzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Turismo Bulegoak aspaldi karpeta batzuk argitaratu ebazan eta euretan Portuzarra eta Gaztelugatxeko San Juan egozan Bermeoko irudi moduan.

Bigarrena: “Euskal Herriko Itzulia” izan zanean kazetariei bertoko informazio zabaltzeko karpeta honeek erabiltzea pentsatu zan. Turismo Bulegoan ez egoanez karpeta nahikorik eta

aurrekoan Irudi Webek egin ebazanez, enpresa horreri eskatu jakozan zuzenean, premia handikoa zalako.

Hirugarrena: 2018ko martxoaren 8an Irudi Web enpresearen aurrekontua jaso zan. Aurrekontuaren zenbatekoa 293,62€-koa da, gehi BEZa 61,38€, *guztira 355,28€*

Laugarrena: 2018ko ekainaren 18an Turismo Bulegoko teknikariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka.

Bigarrena: Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.8, 63.4 eta 118. artikuluak.

Hirugarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2018ko martxoaren 5eko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 355,28€ko gastua baimentzea Irudi Web enpreseak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, eta indarrean dagoan udal aurrekontuaren 01000-43200-226.03.07 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Lan hau Irudi Web enpreseari esleitzea 355,28€-tan (BEZ barne) eta esleipena bat dator 2018ko martxoaren 8ko aurrekontuagaz.

HIRUGARRENA: Interesdunari, eta Kontu-hartzailetzari erabagi honen barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

9. - BERMEO TUNA WORLD CAPITAL (BTWC) PROIEKTUAREN BARRUAN, UDARAKO PINTXO IBILBIDE BAT SORTZEA ETA EKIMENA ZABALTZEKO PLANOAK KALERATZEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeo Tuna World Capital (BTWC) proiektua edukiz betetzeko, udarako pintxo ibilbide bat sortzea eta ekimenaren zabalkuntzarako planoak kaleratzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2017-2018 enplegu planetan martxan jarri zan proiektuetariko bat udarako pintxo ibilbide bat martxan ipintzea izan zan. Horretarako apirilean pintxoei buruzko ikastaro bat egin zan.

Bigarrena: BTWC maiatzean aurkeztu zan eta proiektuak edukiz bete behar dira. Pintxo ibilbide hau proiektu handi horren barruan joango da.

Hirugarrena: 2018ko ekainaren 8an Irudi Web enpresaren aurrekontua jaso zan. Aurrekontuaren zenbatekoa 1058€-koa da gehi BEZa 222,18€, *guztira 1280,18€*

Laugarrena: 2018ko ekainaren 18an Turismo Bulegoko teknikariak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak beharrezko atxikipena dauka.

Bigarrena: Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.8, 63.4 eta 118. artikuluak.

Hirugarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2018ko martxoaren 5eko 244. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 1280,18€-ko gastua baimentzea Irudi Web enpreseak aurkeztutako aurrekontuaren arabera eta indarrean dagoan udal aurrekontuaren 01000-43200-226.03.07 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Lan hau Irudi Web enpreseari esleitzea 1280,18€-tan (BEZ barne). Esleipena bat dator 2018ko ekainaren 8ko aurrekontuagaz.

HIRUGARRENA: Interesdunari eta Kontu-hartzailetzeari erabagi honen barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

10. - ALKATETZEAREN DEKRETUEN BARRI EMOTEA

Alkatetzearen dekretuen barri emon da, udaleko Tokiko Gobernu Batzarra jakitun geratu daiten.

11. - ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat emon dau batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidautakoa eta erabagitakoa jasota geratu daiten, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dodanak, horren fede emoten dot, lehendakariaren oneretxiagaz.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazinoko .....(e)tik.....(e)ra arteko zenbakidun papelean jaso da.

Orri oinean data eta sinadurak

3. PUNTKO ERANSKINA

HOMOLOGATURIK DAUDEN EUSKALTEGI EDOTA BARNETEGIETAN, HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK EGITEN DITUZTEN BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**EUSKARA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitzuburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala.
XEDEA:	Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-11
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2018ko aurrekontuan: 8.000 €. 01400-33540-4810316 aurrekontuko partida
HELBURUA:	Euskara ikasten ari diren Bermeoko bizilagunei erraztasunak ematea, matrikula ordaintzea eragozpena izan ez dakien euskara ikasteko
EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea: 2018ko urriaren 2tik 31ra
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	- Bermeon erroldatuta egotea -Matrikula egiten den egunetik ikastaroa bukatzen denera arte emaniko orduen %80 edo gorako asistentzia edukitzea. Nahitaezko betebeharrengatik ez joatea edo gaixotasun-bajak erakunde eskudunak justifikatu beharko ditu. - Hasten den ikastaroa bukatzea. Ezin da urratsa edo euskaltegia aldatu erakunde eskudunaren baimenik izan gabe. - Diru-laguntzaren emakida dakarten baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera behar diren jarduketak egiten baimentzea eta Bermeoko Udalak eskatzen dion informazio guztia ematea.
ESKATZAILEAK:	Onuradun izango dira homologaturiko euskaltegi edo barnetegietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten ari direnak. Diru-laguntza horietatik kanpo geratuko dira graduondoko, doktorego, master eta karrerarako ikastaroak. Halaber, ez dira diruz lagunduko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak arauturiko irakaskuntza (Hizkuntza Eskola Ofizialak, esaterako) ezta beste erakunde batek antolatutako ikastaroak ere, esaterako IRALE eta HAEEren bidezko ikastaroak
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	Aurreko ikasturteko matrikula-gastuak lagunduko dira, baremo hauen arabera: -Oinarrizko Errenta edo Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen duten eskatzaileentzat: gehienez, matrikularen % 70 -Diru-laguntzaren xede den ikasturte osoan langabezian dauden langabetuentzat: gehienez, matrikularen % 60. Zati batean bada, modu proportzionalean aplikatuko da.

	-Gainontzeko ikasleentzat: gehienez, matrikularen % 50 -Ikasle bakoitzak, gehienez, 300 €-ko diru-laguntza jaso ahal izango du ikastaro bakoitzeko. -Urtean zehar egin daitezkeen ikastaro guztiengatik ikasle bakoitzak, gehienez, 500 € jaso ahal izango ditu.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Ebazteko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra. Instruktoreak egindako txosten teknikoaren gainean balorazio-batzordeak diktaminatu eta alkatearen dekretu bidez ebatziko da, beranduenez, abenduaren 15ean. Eskaerak baloratu ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira: -Eskaera-orria beteta -NANaren fotokopia -Langabeek, lan-bizitzaren ziurtagiria. -Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larrialdiko Laguntzarik jasotzen dutenek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria. -Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria. Barnetegien kasuan, bakarrik ikastorduen matrikulari dagokion kostua. -Beste diru-laguntzei buruzko zinpeko aitorpena (*1. eranskina*). -www.habe.euskadi.eus orrialdean sartuta, “Ikaslearen ibilbide osoa” agiria. (*2. eranskina*). -Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu), kontu horren titularraren izena eta NAN zenbakia adierazita
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**EUSKARA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitzuburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala.
XEDEA:	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-12
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2018ko aurrekontuan: 2.016,00 €. 01400-33540-4710000 partidan.
HELBURUA:	- Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea - Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisajea euskaraz egon dadin

EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik aurrera, 2018 amaitu arte.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	- Errotulua euskaraz idatzita egotea. -Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak eta frogagiria aurkeztuta, diru laguntza jasotzeko modua izango du. -Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. -Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea
ESKATZAILEAK:	Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute diru laguntza. Diru laguntzaren onuradunek, errotulua ipintzeagatik hirigintzako lizentzia eskatu behar duten kasuetan, hobaria izango dute, tasaren %75ekoa.
DIRUZ LAGUNGARRIA DEN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	<u>Lagunduko diren elementuak</u>: 1- Establezimenduetako kanpoko errotulua 2- Autoetako errotulazioa 3- Toldoetako errotulazioa 4- Binilozko errotuluak <u>Diruz lagunduko ez direnak</u>: 1- Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak. 2- Izen propio, toponimo eta abizenak bakarrik adierazten dituzten errotuluak. 3- Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da, ez diseinua, ez ipintzearen kostua, ezta diseinuaren bestelako osagaiak ere. 4- Bermeoko Udalagaz zorra daukana. Gehienez eskura daitekeen diru-kopurua 300 €koa izango da. Zenbateko horretatik beherako eskaririk balego, kostuaren %75 eskura daiteke.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Ebazteko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra. Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gehienez, hamabost eguneko epean. Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki. Aurkeztu beharreko agiriak: -Eskaera-orria beteta -Errotuluaren izena jasotzen duen agiria -Jatorrizko faktura --Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu) -Ipinitako errotuluaren argazkia
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	 79- Euskeraz errotuluak jartzeagat

GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**EUSKARA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitzuburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala.
XEDEA:	Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-13
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2018ko aurrekontuan: 1.000 €. 01400-33540-4800102 partida
HELBURUA:	- Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea - Euskararen erabilera sustatzeko udalerriko eragileekin batera ekimenak eta programak bideratzea
EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea, 2018ko urriaren 2tik 31ra.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	-Bermeon erroldatuta egotea -Gidabaimenaren prestakuntza euskaraz egitea -B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz eginda eta gainditua izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen -Bermeoko Udalagaz zorrik ez izatea
ESKATZAILEAK:	Bermeon erroldatuta egon eta gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	Gidabaimena prestatu eta azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzea. Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek 150 euroko diru-laguntza jasoko dute.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Ebazteko prozedura:konkurrentzia ez lehiakorra. Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira. Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki. Aurkeztu beharreko agiriak: -Eskaera-orria beteta -Nortasun Agiriaren fotokopia -Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)

	-Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoa euskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria -Erakunderen baten diru laguntza jaso izanaren kasuan, horren frogagiria
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	03-ESKAERA ORRIA.doc 03-ESKAERA ORRIA BI HIZKUNTZETAN.dc

GAZTEEI BIDERATUTAKO EKINTZAK ZEIN AISIALDIKO EKINTZA BEREZIAK FINANTZATZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**Gazteria Saila**
INSTRUKTOREA:	Gazteria teknikaria (Iñaki Lopez)
BALORAZIO BATZORDEA:	Gazteria Batzordean ordezkaritza duten alderdi politiko bakotxeko zinegotzi bana (4) + Gazteria teknikaria
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Gazteei bideratutako ekintzak zein aisialdiko ekintza bereziak.
KODEA:	Gazteria diru-laguntzak 2018
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2.000 euro. Partida 001200-33421-4810308
HELBURUA:	Bermeoko gazteen artean alkarteak sortzea suspertzea eta herri mailan gazteei bideratutako ekintza eta programa bereziak finantzatzeko gazteen alkarteei baliabide ekonomikoak emotea.
EPEA:	Eskariak aurkezteko epea, hogeita bat (21) egun naturalekoa izango da, honeek oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
BALORAZIO ERISPIDE ZEHATZAK:	Diru-laguntzak emoteko erabiliko diran **balorazino erispideak** honako honeek izango dira: - **Taldearen antxinatasuna (10 puntura arte).** 3 urtera arte (2) / 4-10 urte bitarte (4) / 11-15 urte bitarte (6) / 16-25 urte bitarte (8) / 25 urtetik gora (10) - **Bermeorako bereziki sortutako ekintza (10 puntu).** - **Ekintza lankidetzan antolatzen bada (10 puntu).** - **Esperientzia, aurretik egindako ekitaldi kopurua (15 puntura arte).** 3 edizio arte (3) / 6 edizio arte (6) / 9 edizio arte (9) / 12 edizio arte (12) / 15 ediziotik gora (15) - **Ekitaldi berezia, urteurren nabarmena ospatzeko (10 puntura arte).** 10, 25, 50, 75 edo 100 (10) / 5, 15, 20, 30, 40, 60, 70, 80 edo 90 (5) - **Ekintzearen hartzaile kopurua aurreko urtean (15 puntura arte).** 100 pertsona arte (4) / 300 pertsona arte (8) / 500 pertsona arte (12) / 500 pertsonatik gora (15) - **Euskal kulturaren hedapena (baloreak sustatu, indartu, bultzatu edo sendotu) (20 puntura arte).**

	Euskal kulturaren ekitaldia (10) / Euskeraz egindako ekitaldia (10) - **Udalaren diru-laguntzaz ganera, finantzazino propioak edo bestelako diru iturriak izatea (10 puntura arte).** Diru-laguntza publikoak izatea (5) / Diru-laguntza pribatuak izatea (5) / Diru-laguntza biak (10)
ESKATZAILEAK:	**Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak:** Diru-laguntzak edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, baldin eta honako baldintza honeek beteten badauz: a) Irabazi asmo bakoa izatea. b) Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan sartuta egotea. c) Egoitza Bermeon eukitea eta jarduera nagusia Bermeon garatzea. Egoitza Bermeotik kanpo izanez gero, ekintza bat Bermeon proposaturik eta interesgarritzat jotzen bada, aztertu egingo litzateke. d) Bermeoko Udalak aurretik emondako diru-laguntzen justifikazinoak behar diran moduan eta egunean izatea. e) Diru-laguntza eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea eta betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	**Diru-laguntzak jaso daikiezan kontzeptuak dira:** jai ekitaldiak, musika saioak, gazteria arloko saioak (gazte egunak eta antzekoak), nerabe eta gazteentzako ekitaldiak, azpiegitura, jaia girotzeko beharrizanak eta apaingarriak, publizidadea, oroigarriak eta sariak, musika eta arte eszenikoak, bideo emonaldiak eta arte plastikoak. Baita, kultura artekotasuna bultzatzeko jarduerak eta programak.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	**Diru-laguntza emateko prozedura:** Konkurrentzia lehiakorra. **Diru-laguntza eskaria**, I. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren. Horrezaz ganera, honako dokumentu honeek aurkeztu beharko dira: - IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada). - Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. - Jardueraren aurrekontu zehatza, jagokon eranskinean, diru-sarrerak (kuotak, bestelako diru-laguntzak edo diru-iturriak), gastu guztien aurreikuspena eta Udalari egindako eskari zehatza. - Alkarteak beste erakunde batzuei eskatutako diru-laguntzen zerrenda ordezkariaren ziurtagiriagaz. Eskaera horren erresoluzinoa egongo balitz, erabagiaren kopia. - Alkarteko estatutuen fotokopiak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena (aldez aurretik aurkeztu ez badira). **Diru-laguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak formalizatzen**, interesdunak **10 eguneko epea** izango dau akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasoten danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da. **Diru-laguntza kopuru gehienezkoa:** Aurrekontuaren %100era arte. Behin gitxieneko diru-kopurua lortuta, diru-kopuru hori programa bakotxean lortutako puntuazinoari jagokon ehunekoa aplikatuta doituko da, taula honetan adierazita dagoan moduan: <u>Programari emondako puntuak</u> <u>Emongo dan diru-laguntzaren %a</u> 81 puntu baino gehiago Gehienez, aurrekontuaren % 100a 71etik eta 80 puntu bitartean Gehienez, aurrekontuaren % 90a 30etik eta 70 puntu bitartean Gehienez, aurrekontuaren % 80a

Salbuespen moduan, 500 € arteko aurrekontua daukan programak, eta 70 puntutik gora lortzen badau, gehienez, aurrekontuaren %100a lortu ahalko dau.

Beharrezko gutxienezko puntuaketa*:* 30 puntu.

Diru-laguntzaren ordainketa: Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz diru-laguntzak ordaintzeko. Diru-laguntzaren %80a programa burutu baino lehen ordainduko da eta ganerako %20a, jarduera burututa, justifikazinoa aurkezten danean. Emondako diru-kopurua justifikazinoagaz batera berrikusiko da. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu beharko da, nahiz eta diru-laguntzaren kopurua txikiagoa izan. Desadostasunik balego, Gazteria Batzordeak aztertuko leuke.

Diru-laguntza ez da ordainduko erakunde onuradunak beste diru-laguntzaren bat justifikatu barik badauka eta justifikatzeko epea amaituta badago.

Aurrekoetan jasotako diru-laguntza baten diru-kopurua atzera itzultzeko eskatuta badago eta itzuli barik, orduan be ez jako ordainduko.

Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak:
- Oinarri berezi honeetako arauak betetzea.
- Programaren ardura berea egitea.
- Publizidadean, diru-laguntzaren aitamena egitea, Bermeoko Udaleko logoa erabiliz.
- Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri.
- Udalari programaren koordinazinoa egiten iztea.
- Aurretik emondako diru-laguntza guztiak justifikatuta eukitea.
- Udalari jakinarazotea beste diru-laguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

Diru-laguntzaren justifikazinoa, II. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren (burututako ekintzaren garapena, partehartzaile kopurua, balorazinoa eta balantze ekonomiko osoa), Bermeoko Udaleko Berh@z bulegoan (Ertzilla kalea 6), 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen. Horrezaz ganera, honako dokumentu honeek aurkeztu beharko dira:

- Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak (konpultsak Udaleko Berh@z bulegoan egiten dabez). Fakturetan, derrigorrez, enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, alkarte eroslearen datuak, zenbatekoa eta BEZa azaldu beharko dira. Jagokon egiaztapena egin eta gero, faktura originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikazinorik, horreek ez badabe balio diru-laguntzaren helburuak lortzeko.
- Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira diruz-lagundutako proiektuagaz bat datozenean eta justifikazino osoaren %25a baino ez badira.
- Egindako publizidadearen kopiak: programak, kartelak, argazkiak edo beste dokumentu grafiko baten ereduren bat, urtean zehar ez badabe aurkeztu. Horreetan, Bermeoko Udaleko logoa agertuko da.

- Diru-laguntzagaz egin beharreko programa ez burutzeak edo diru-laguntza ez justifikatzeak aurreko dokumentazinoaren arabera, edo epez kanpo justifikatzeak diru-laguntza galtzea suposatuko dau, ordaindutako kopuruen itzulketagaz, gehiengoz 30 eguneko epean.
- Justifikazinorik egiten ez danean edo egindako justifikazinoa nahikoa ez danean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da berandutzeko interesakaz batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. idatz-zatian dagoan moduan.
- Diru-laguntza ondo justifikatzeko, programan agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu beharko da, nahiz eta diru-laguntzaren kopurua txikiagoa izan. Udalak justifikazinoa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari

	azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	202.-2018 Gazteei_dirulaguntza 203.-2018 Gazteei_justifikazinoa

BESTE BALIABIDEEK ESTALTZEN EZ DITUZTEN BEHARRIZANEI BIDERATUTAKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA**
INSTRUKTOREA:	OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO GIZARTE LANGILEAK
BALORAZIO BATZORDEA:	GOUP-EKO BATZORDE ZUZENTZAILEA
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	GIZARTEKINTZA: Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen direnek estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonei zuzendutako diru laguntzak.
KODEA:	00000-23102-48009000
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	ESKARIEN ARABERA
HELBURUA:	Osagarria. Beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharrizanak, batez ere, adin txikikoen tratamenduak. Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen direnek estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonei zuzenduta daude. Ezin dugu ahaztu, badaudela pertsonak eta familiak, eskatzen den baldintzaren bat ez betetzeagatik ezin dutenak laguntzarik jaso, beharrizan egoeran, gizarte bazterketa jasateko arriskuan edo premiazko beharrizanean egon arren, eta Gizarte Larrialdi gastuetarako partidan aurrekonturik ez dagoelako lagundu ezin zaienak edo kontzeptua agertzen ez delako edo aplikatzeko baremo ekonomikoa ezberdina delako.
EPEA:	URTE OSOA
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	**DIRU-LAGUNTZAK TRAMITATZEKO KONTUAN IZAN BEHARREKO BAREMOAK** Bizikidetza unitatearen araberako urteko diru-sarrera mugak: Kide 1: 14826 € Kide 2: 25308 € 3 kide: 34352 € 4 kide edo gehiago: 40796 €

ESKATZAILEAK:	Laguntza hauek hartu ahal izango dituzte, gizarte beharrizan egoeran egon eta babes sozialeko beste sistema batzuetatik laguntzarik hartzeko aukerarik ez daukaten pertsonak eta familiak.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	**A) ETXEBIZITZA:** Epai judizialaren bidez egiten diren etxebizitza utziarazpen kasuetarako edo Oinarrizko Zerbitzu Sozialetan aurretiaz egiaztatutako egoera larrietan. Errenten gastuak: Errentari bakarreko etxebizitzen kasuan, edo errentari gehiagoren artean ordaintzen denean errenta edo bizikidetza-unitate bakarreko eskatzaileari azpierrentan emanda dagoenean, hilean 250 €, sei hilabetetan gehienez eta aparteko kasuren batean 8 hilabetetan. Azpierrenta edo errentari baten baino gehiagoren artean ordaintzen den errenta kasuetan , etxe-unitate bakoitzarentzat 125 € hilero izango da gehiena, 6 hilabetetan gehienez eta aparteko kasuetan 8 hilabetetarako. Ostatu edo apopiloen egonaldien kasuetan, 125 € hilero unitate bakoitzeko eta legez eratutako hotel edo ostatuetan egotean, 250 € hilero gehienez, 6 hilabetetan edo aparteko kasu berezietan 8 hilabetetan. **B) BEHARRIZAN PERTSONALAK:** Atal honetan, banaka aztertuko dira bakoitzaren beharrizanak, une zehatz horretako beharra baloraturik eta atal honetan batu ditzakegun laguntzak kudeaturik: **Arrisku egoeran dauden adin txikikodun familien beharrizanak**: Adin txikikoen berariazko beharrizanak sartzea egoki ikusi da, adibidez: astialdiko ekintzak ordaintzea, eskolako materiala ordaintzeko aurrerakina ematea, eskolako jantokia, tramitatu ezin izan diren kasuetan, beka; beharrizan bereziekin arrisku egoeran dauden adin txikikoentzat aurkeztutako laguntza bereziak, ekintzak edo beharrizanak. **Estimulazio goiztiarra**: 6tik 14 urte bitarteko umeentzat errehabilitazio tratamenduek eragindako gastuak ordaintzeko laguntzak kudeatuko dira. Derrigorrezkoa izango da ezintasun edota mendekotasun egiaztagiria aurkeztea. Tratamendua agintzen duen medikuaren txostena eta aurrekontu 2 ere aurkeztu beharko dira. **Garraioa:** Garraioa erabili beharrak eragindako gastuak kudeatuko dira, honako kasu hauetan: – mediku tratamenduak – prestakuntza ekintzak burutzea – babestutako enplegu zentroetara joatea – batzorde iraunkorrak egoki ikusten dituen beste batzuk
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Prozedura konkurrentzia ez lehiakorra izango da. Eskariak aurkezteko epea urtarriletik hasita azaroko azken egun balioduna arte izango da. Jasotako diru laguntza guztiak, urteko azken batzordean (abenduan) aztertuko dira. Aurrekontuan zehaztutako diru kopurua, proportzionaltasunez banatuko da eskatzaile bakoitzaren beharrizanen arabera, hau da, media aritmetikoa egingo da aurrekontu erabilgarria eta aurkeztutako beharrizanen artean. Eskarietan, kontutan hartuko dan gehienezko diru kopurua 3.500,00 eurokoa

	izango da. Eskatzaileek Bermeoko udalerrian erroldatuta egon beharko dira. Prestazioek borondatezko izaera berezia daukate. Prestazioek ezin izango dira eskatu aurrekari modura. Batzorde Iraunkorrak egiaztatu dezake, egokiak ikusten dituen erak erabilita, eskatzaileen egoera ekonomikoa, lanekoa eta soziala, baita, ematen diren laguntzak aurreikusitako helbururako erabiliko direla ere. Bermeoko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek beharrezkoa den txostena eman beharko die Batzorde Iraunkorrari prestazio proposamenei buruz, honako hauek argi eta garbi azaldurik: helburua, izango duen iraupena, balorazio ekonomikoa eta zelako neurriak ezarriko diren, hartzaileek laguntzeari erabilera zuzena emango diela ziurtatzeko egingo den jarraipena eta kontrola. Laguntza hauek ezin izango dira erabili Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) osagarri modura, kasu berezietan izan ezik, eta berezitasun hori mediku zein gizarte txostenez justifikatuta egon beharko da. Beste edozein diru-laguntzak hartu ahal izateko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute eskatzaileek behar den moduan betetako eskariarekin batera.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	

2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK ESPARRUA: KIROLA

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**Kirol Patronatua**
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa), Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa) Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa) Itxaro Zabala
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Eskola-kirola foru programan parte hartzen duten ume zein gazte bermeotarrei, jarduera fisikoa eta kirolaren praktika osasuntsua bermatzeko diru-laguntza programa.
KODEA:	**2018/04-03**
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	**6.000 €. PARTIDA 00000-34120-4890103**
HELBURUA:	• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. • Kirola era seguruan egitea, dagokion azterketa medikua eginez. • Aisialdia betetzeko aukera erakargarria bihurtzea kirola.

	• Jasotzaileek jabetzea Bermeo ordezkatzen dutela parte hartzen duten eskola-lehiaketetan, eta euren portaera Bermeoko irudiarekin lotuta dagoela. • Kirol ohitura osasuntsuak adin txikietatik tinkatzen erraztea.
ESKATZAILEAK:	**ESPEZIFIKAZIOAK**: Eskola-Kirola foru egitarauko parte hartzaile bermeotarrak.
PROGRAMA:	**ESPEZIFIKAZIOAK**: Foru Aldundiko agiria ziurtatuz Eskola Kirola foru egitarauan parte hartzen duela.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:	Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra. Diru-laguntza tipoa: Gauzaz ordaintzea.Ordainketak egiteko, eskaria egiten den data izango da kontuan aurreikusitako diru-kopurua amaitu arte. Laguntzen diren gastu motak: sudaderak (Bermeo Kirolak), azterketa medikua (1) eta kirol material berezia (adin txikikoei egokituta). Beharrezko gutxienezko puntuaketa: 0

2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

ESPARRUA: KIROLA

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**Kirol Patronatua**
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa), Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa) Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa) Itxaro Zabala
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa
KODEA:	**2018/04-02**
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	**21.000 €. PARTIDA 00000-34120-4890102**
HELBURUA:	• Herri osoarentzat, jarduera arruntetik haratago antolatzen diren jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dutenak. • Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu. • Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.
BALORAZINO ERIZPIDEAK:	1.- Kirol ekintzaren aurkezpena (dokumentazinoa). 2.- Kirol ekintzaren iraupena. 3.- Ikusleen erantzuna. 4.- Partaidetza aldetik: - parte hartzaile kopurua eta – nori zuzenduta dagoan.

	5.- Kirol ekintzaren izakerea. 6.- Aurrekontua: finantziazino mailea eta argitasuna. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuko da. 7.- Diziplina horri buruz aurkeztutako proiektuen kopurua.
ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA:	Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra. Eskariak aurkezteko epea urriaren 31ra artekoa izango da, honeek oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diranetik hasita. Horrezaz ganera, honeek izango dira aurkeztu beharreko dokumentuak: • IFKren fotokopia edota NANaren fotokopia persona fisikoa balitz • Ekintzearen aurrekontu zehatza, agertu beharko dau ekintza gauzatzeko zein neurri ekonomiko daukan (kuotak, bestelako dirulaguntzak, eskari zehatza, etab.) (1go ERANSKINA)
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:	Dirulaguntza berezien onuradunak ekintzako dirulaguntzearen justifikazinoa egin beharko dau, honeek dokumentuak ekarrita, **ekintza egin eta hiru hilebeteko** epean. 1. Ekintzearen memoria: egindako ekintzearen garapena, balorazinoa, lortutako helburuak eta ebaluazinoa, balantze ekonomikoa, gastuak eta diru sarrerak barne, bestelako dirulaguntzak. (II. ERANSKINA) ***Dirulaguntzea ezingo da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokoloko ekintzetarako eta bazkarietarako.**
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	163.-2017 Urteko kirol jarduera berezien 164.- 2017 Kirol jarduera bereziak Esk

2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

ESPARRUA: KIROLA

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**Kirol Patronatua**
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa), Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa) Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa) Itxaro Zabala
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntza programa

KODEA:	**2018/04-01**
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	**15.000 €. PARTIDA 00000-34120-4890101**
HELBURUA:	• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. • Elkartegintza bultzatu • Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu elkarteen laguntzarekin. • Kirol praktika federatuari bultzakada eman bere emaitzak eta antolaketa optimizatzeko.
ESKATZAILEAK:	**ESPEZIFIKAZIOAK**: Helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera Bermeon duten kirol elkarteak. Taldeek %30etik gorako autofinantzaketa izan beharko dute. **BAZTERTZEAK**: Dirulaguntza eskatzen daben kirol taldeen jokalari batek be ezin izango dau dirurik kobrau kirola egitearren.
ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA:	Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra. Eskariak aurkezteko **hilebeteko epea** egongo da, honeek oinarriak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen diranetik hasita. Aurkeztu beharreko dokumentuak, (eranskinak euskaraz): a) Eskaera instantzia behar bezala osaturik (1go ERANSKINA) b) IFK-ren kopia eta kirol taldearen estatutuak aurreko urteetan ez badira aurkeztu. c) Ogasun Sailaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiria esanez egunean daudela betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan. d) Aurreko urtean eginiko jardueren txostena. Txostenaren gehienezko luzera 4 orrikoa izango da. Taldeko kiroletako taldeak zenbat talde eta zein mailatan lehiatu diren espezifikatu beharko dute. Atal honetan zehaztu beharko da euskararen erabilera kirol jardueretan (entrenamenduak, publizidadea...) e) Jardueren sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu beharko da, non agertu beharko da ze neurri ekonomikoez lagundu diren ekintzak aurrera eramateko (kuotak, bestelako dirulaguntzak, eskari zehatza, etab.) eta gastuen jatorria (bidaiak, kirol materiala, federazioak sortutako gastuak...)(2. ERANSKINA). Puntu honekin batera faktura orijinalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira. (Udaleko Berh@z bulegoan eta Kirol Patronatuan konpultsak egiten dira). f) Taldeko kirolari federatuen zerrenda, beti ere, 2017-2018 denboraldian zehar 14 urte betetzen dituztenak barne. Zerrenda hau federazioak sinatutako orrialde batean agertu beharko da hurrengo datuez horniturik: jaiotze data, helbidea duen herria eta parte hartu duen lehiaketak edo kirolari bakoitzaren fitxaren kopia eta parte hartu duen lehiaketako aktaren kopia bat, baina beti eskatzen diren datuak islatuz (jaiotze data eta bizi den herria). g) 2017-2018 denboraldian aktiboki talde federatuekin dauden entrenatzaileen zerrenda eta zein den beraien titulazioa. Titulazio ofizial originala ekarri beharko da Kirol Patronatuak konpultsatzeko. h) 2018-2019 denboraldirako taldeak dituen egitasmoak. Talde

	kiroleko taldeak, denboraldi horretan izango dituen talde kopurua eta kategoria islatu beharko dute (gehienez 2 orri). i) 2018-2019 denboraldirako taldeak dituen aurrekontu eta gastuen aurreikuspena (3. ERANSKINA) j) 2017-2018 denboraldian zehar aurrera eramandako jarduerak: eskola-kirola bultzatzeko lankidetza, herrian kirola bultzatzeko eginiko ekintzak bere kabuz edota Udalaren Kirol Patronatuaren laguntzagaz (4 ERANSKINA). Puntu honetan erabilitako publizidadearen kopiak erantsi behar dira: programak, kartelak, argazkiak, kamisetak, etab. Euskarri hauetan guztietan Udalaren Kirol Patronatuaren logoa agertu beharko da.
BALORAZINO ERISPIDEAK:	1. Federatutako taldeko: — Lurraldeko lehiaketatan dagozanengaitik: 10. — Autonomia erkidegoko lehiaketatan dagozanengaitik: 20. — Estatuko lehiaketatan dagozanengaitik: 30. 2. Federatutako kirolari bakotxeko helbidea Bermeon izanik: — Banakako kirolean: 02. — Taldeko kirolean: 01. — Euskadiko selekzinoan dagoan kirolari bakotxeko: 01. — Euskadikoaren ganetik dagoan selekzinoren baten dagoan kirolari bakotxeko: 02. 3. Entrenatzaileko: — Erdi mailako hasiera zikloko teknikaria edo I.go nibela: 03. — Erdi mailako bukaera zikloko teknikaria edo II nibela: 06. — Goi mailako teknikaria edo III.nibela: 10. 4. Herritar danen parte hartze aktiborako eta Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren edota Udalaren dirulaguntza gabeko, kirol jarduera antolakuntza bakoitzagatik: 2. 5. Ikastetxeakaz eskola-kirola bultzatzeko lankidetzengaitik, jarduera bakoitzagatik: 2. 6. Kirol jarduerak sustatzeko Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuagaz lankidetzan arituta antolatutako kirol jarduera bakoitzagatik: 2. 7. Areneko udal kiroldegia derrigor erabili behar daben klub bakotxeko federaduen %25 puntuauko dira. Programako diru-laguntza kopuru gehienezkoa: %70 Beharrezko gutxienezko puntuaketa: 10 Puntuak gehienez 60 euroko balioa izango du.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:	BAZTERTZEAK: Dirulaguntza ezingo da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokolo ekintzetarako eta bazkarietarako.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	158.-2017 kirol deak orokorra.eska 159.-Aurreko urteko kitapena kirol.docx 160.-Datorren denboraldirako aurrei 161.-Jarduera paraleloak.docx

2018. URTEKO BERMEOKO KULTUR TALDEEI URTEKO JARDUERA ARRUNTAK FINANTZIATZEKO DIRULAGUNTZA PROGRAMA

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)
BALORAZIO BATZORDEA:	Kultura eta Hezkuntza Batzordea
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Bermeoko kultur taldeei urteko jarduera arruntak finantziatzeko dirulaguntza programa
KODEA:	KU11-1
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	24.000 € (00400-33410-481.01.05)
HELBURUA:	Udalaren 5.3 helburu estrategikoa dan "talde sozial eta kulturalen ekimenak bultzatu" garatzeko, dirulaguntza hau Bermeoko kultur taldeen urteko programak eta ohiko funtzionamendurako izango dira. Alkarteek egingo dabezan ekintzak edo programak, interes sozialekoak izango dira.
EPEA:	Eskariak aurkezteko epea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik 10 egun natural izango da.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	

Bazkide kopurua	15 puntura arte
3tik 9ra	3
10etik 19ra	6
20tik 49ra	9
50tik 99ra	12
100 baino gehiago	15

Aurreko urtean herriari eskainitako ekitaldi kopurua	15 puntura arte
2	9
3tik 5era	12
6tik gora	15

Taldearen antxinatasuna	15 puntura arte
3 urtera arte	3
4 eta 10 urtera arte	6
11 eta 15 urtera arte	9
16 eta 25 urtera arte	12
25 urtetik gora	15

Ekintzen hartzaile kopurua, aurreko urtean ekintza nagusian egondako ikusleak	10 puntura arte
100era arte	3
101etik 300era arte	6
301etik 500era bitartean	9
500etik gora	10

Euskerearen erabilerea	15 puntura arte
Ahozko erabilera	8
Idatzizko erabilera	7

Formazino arloa lantzea, ikastaroak egitea	5 puntu

	<table><tr><td>Beste alkarte batekaz edo programa batzuekaz alkarlaguntza</td><td>10 puntura arte</td></tr><tr><td>Talde batekaz edo programa batean Baten baino gehiagotan</td><td>5 10</td></tr></table> <table><tr><td>Norbere finantziazinoa edo beste diru iturriak eukitea</td><td>15 puntura arte</td></tr><tr><td>Aurrekontuaren %5a eta %20ra arte Aurrekontuaren %20a baino gehiago</td><td>8 15</td></tr></table>
ESKATZAILEAK:	Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz: a) Irabazi asmo bakoak izatea. b) Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea. c) Egoitzea Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea. d) Bermeoko Udalak aurretik emondako diru-laguntzen justifikazinoak behar diran moduan eta egunean izatea. e) Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau. f) Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	Arlo honetan diru-laguntzak jaso daikiezan kontzeptuak dira: formazinoa, baliabide materialen hornikuntzea eta giza baliabideak, alkartrukeak, federazinoen kuotak, beharrezkoak diran kudeaketa gastua eta ohiko ekintzak, hau da, aurrekontu txikia daukienak, urteko egutegian egiten diranak, gastuak ohiko aurrekontuan dagozanak, e.a. Oro har, jarduera berezi moduan identifikatuta ez dagozanak. Diruz lagundutako programeagaz lotura zuzena daben katerin eta ordezkaritza-gastuak justifikatzeko orduan, gastu horreek, gehienez be, programearen kostuaren %10 izango dira.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Alkarte batek dirulaguntza eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dau, dirulaguntza programa honetan. Dirulaguntza eskaria I. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo betetu ondoren. a) IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada). b) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo udalari baimena emon ziurtatzeko) c) 2018 urteko proiektua, jagokon eranskinean zehaztuta. (I) d) Alkarteko estatutuen fotokopiak, eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean. **<u>Akatsak zuzentzeko epea</u>** Dirulaguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da. **<u>Diru-laguntzak emoteko prozedura</u>** Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakiokeen erregimena hau da: Konkurrentzia lehiakorra prorrataren bidez. • Dirulaguntzak prorrata sistemaren bidez emongo dira, puntuazinoaren arabera, aurrekontuko dotazino osoa banatuz. • Eskatzaile batek ezin izango dau 5.500 € baino gehiagorik jaso. • Diru-laguntzearen zenbatekoa honako hau izango da, gehienez be, aurrekontuaren %80ra arte.

	• Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabez dirulaguntza bat jasotzeko. **<u>Diru-laguntzak ordaintzea</u>** Bermeoko Udalak, aurretiko ordainketak egin ahal dauz. Diru-laguntzearen %80 programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta diru-laguntzearen beste %20a, ekintzea justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazinoagaz batera berrikusiko dirala. Diru-laguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan. Udalak justifikazioa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren %20a, hau da da, azken zatia ordainduko dau. Bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso. Desadostasunik balego, Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko leuke. **<u>Diru-laguntzearen onuradunen betebeharrak</u>** 1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri. 2. Udalari jakinarazotea beste diru-laguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan). **<u>Diru-laguntzearen justifikazinoa</u>** 1. Diru-laguntzearen onuradunak 2018. urteko diru-laguntzearen justifikazinoa egin beharko dau, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, 2018ko abenduaren 10etik 2019ko urtarrilaren 11ra bitartean. 2.Justifikazinorik egiten ez denean edo egindako justifikazinoa nahiko ez denean, jasotako diru kopurua itzuli egin beharko da berandutzeko interesakaz batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.artikuluko 1.idatz-zatian dagoen moduan. 3. Ebaluazino-memoria, II. eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazinoa eta balantze ekonomiko osoa jasota. 4. Erabilitako publizidadea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	165.- Eskaria - Kultur taldeen jarduera arru 166.- Justifikazioa - Jarduera arruntak (II

2018. URTEKO BERMEOKO KULTUR TALDEEN JARDUERA BEREZIAK FINANTZIATZEKO PROGRAMA

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)
BALORAZIO BATZORDEA:	Kultura eta Hezkuntza Batzordea
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	2018 urteko Bermeoko kultur taldeen jarduera bereziak finantzatzeko programa
KODEA:	KU11-2
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-	12.250 € (00400-33410-481.01.29)

KOPURUA:

HELBURUA: Udalaren 5.3 helburu estrategikoa dan “talde sozial eta kulturalen ekimenak bultzatu” garatzeko, dirulaguntza hau Bermeoko kultur taldeei eta bestelako pertsona juridikoei urtean zehar kultur ekintza bereziak antolatzeko izango dira, udaleko kultur eta jai jarduerak osatzen edo ordezkatzen dauzanean.

EPEA: Eskariak aurkezteko epea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik 10 egun natural izango da.

BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:

Taldearen antxinatasuna	10 puntura arte
3 urtera arte	2
4 eta 10 urtera arte	4
11 eta 15 urtera arte	6
16 eta 25 urtera arte	8
25 urtetik gora	10

Ekitaldi berezia, urteurren nabarmena ospatzeko	10 puntura arte
10, 25, 50, 75 edo 100	10
5, 15, 20, 30, 40, 60, 70, 80 edo 90	5

Esperientzia, aurretik egindako ekitaldi kopurua	15 puntura arte
3 edizino arte	3
6 edizino arte	6
9 edizino arte	9
12 edizino arte	12
13 edizinotik gora	15

Ekintza edo programa herriko elkarteekaz lankidetzan antolatzen bada	15 puntu

Ekintzaren hartzaile kopurua aurreko urtean edo ekintza nagusian	15 puntura arte
100 pertsona arte	4
300 pertsona arte	8
500 pertsona arte	12
500 pertsonatik gora	15

Euskaren erabilera	20 puntura arte
Ahozko erabilera	12
Idatzizko erabilera	8

Udal dirulaguntzaz gain, finantzazino iturriak lortzeko ahalegina	15 puntu arte
Aurrekontuaren %5a eta %20 arte	8
Aurrekontuaren %20a baino gehiago	15

ESKATZAILEAK: Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz:

a) Irabazi asmo bakoak izatea.

b) Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea.

c) Egoitzea Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea. Egoitzea Bermeotik kanpo badauka, baina ekintza bat Bermeon proposatzen badau eta interesgarritzat joten bada, aztertu egingo litzateke.

d) Bermeoko Udalak aurretik emondako diru-laguntzen justifikazinoak behar diran moduan eta egunean izatea.

e) Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.

f) Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebehar

	fiskaletan eta Gizarte Segurantzan.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	Arlo honetan diru-laguntzak jaso daikiezan kontzeptuak dira: kultura difusioa eta sustapena egiteko jarduerak eta programak, musika eta arte eszenikoak, bideo emonaldiak, umeentzako ekitaldiak, folklore, ondarea eta arte plastikoak. Baita, kulturartekotasuna bultzatzeko jarduerak eta programak. Adibidez, alkarteen urteurren ospakizunak, lehiaketak, jaialdiak, nazioarteko egunen ospakizunak eta nahiz eta urtero errepikatzen diran, izaera berezia daukien programak, epe labur eta zehatz batean egiten diranak eta alkartearentzat aparteko gastua suposatzen dabezanak. Diruz lagundutako programagaz lotura zuzena daben katerin eta ordezkaritza-gastuak justifikatzeko orduan, gastu horiek, gehienez be, programaren kostuaren %10 izango dira, salbu programaren batek justifikatzen badau zerbitzuen kontraprestazino moduan dirua barik, katerin edo ordezkaritza gastuak daukazala, eta beti be, %25 baino gitxiago bada.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Elkarte batek dirulaguntza eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dau, edota ondo justifikatuta badago, eskaera bi dirulaguntza programa honetan. Salbuespena, elkarte batek amankomunean egindako ekitaldi baterako eskaera egiten badau, beste bat eskatu ahal izango dau. Dirulaguntza eskaria III. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo betetu ondoren. a) IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada) b) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo Udalari baimena emon ziurtatzeko) c) 2018 urteko proiektuak, jagokon eranskinean zehaztuta. (III) d) Alkarteko estatutuen fotokopiak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean. **<u>Akatsak zuzentzeko epea</u>** Dirulaguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da. **<u>Diru-laguntzak emoteko prozedura</u>** • Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakiokeen erregimena hau da: Konkurrentzia lehiakorra prorrataren bidez. • Prorrata danean, aurkeztu diran eskari guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazino guztia, salbuespenakaz, kontutan hartuta, modalitatearen arabera, lortutako puntuazinoa, moduloak edo esleipen finkoa. • Prorrata sistemaren bidez emongo dira, puntuazinoaren arabera, eta aurrekontuaren % 80a arte, honako salbuespen honegaz: 1.000 € arteko aurrekontua daukan programak, eta 50 puntutik gora lortzen badau, aurrekontuaren %100a eskuratuko dau, esleipen finkoagaz. • Eskatzaile batek ezin izango dau 5.500 € baino gehiagorik jaso. • Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko. **<u>Diru-laguntzak ordaintzea</u>** Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz. Diru-laguntzearen %80a programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta diru-laguntzearen beste %20a, ekintzea justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazinoagaz batera berrikusiko dirala. Diru-laguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan. Udalak justifikazinoa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso. Desadostasunik balego, Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko leuke.

	Diru-laguntzearen onuradunen betebeharrak 1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri. 2. Udalari jakinarazotea beste diru-laguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan). **Diru-laguntzearen justifikazinoa** 1.Diru-laguntzearen onuradunak 2018. urteko diru-laguntzearen justifikazinoa egin beharko dau, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, diruz-lagundutako ekintzea egin eta hiru hilabeteko epean. Urritik aurrera egiten diran ekimenen kasuan, epe mugea 2019ko urtarrilaren 11a izango da. 2.Ebaluazino-memoria IV. eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazinoa eta balantze ekonomiko osoa. 3. Erabilitako publizidadea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	169.- Eskaria - Kultura eta jai jardue 167.- Justifikazioa - Kultura eta jai jardue

2018. URTEKO BERMEOKO KULTUR TALDEEN ETA BESTELAKO PERTSONA JURIDIKOEN JAI EKITALDI BEREZIAK FINANTZIATZEKO PROGRAMA

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)
BALORAZIO BATZORDEA:	Kultura eta Hezkuntza Batzordea
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	2018 urteko Bermeoko kultur taldeen eta bestelako pertsona juridikoek, Bermeoko jaietan jai ekitaldi bereziak finantziatzeko programa
KODEA:	KU12-1
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	34.000 € (00400-33810-481.03.07)
HELBURUA:	Udalaren 5.3 helburu estrategikoa dan “talde sozial eta kulturalen ekimenak bultzatu” garatzeko, dirulaguntza hau Bermeoko kultur taldeei eta bestelako pertsona juridikoei, jai ekitaldi bereziak antolatzeko izango dira, batez be, Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan, udaleko kultur eta jai jarduerak osatzen edo ordezkatzen dauzanean.
EPEA:	Eskariak aurkezteko epea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik 10 egun natural izango da.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	

Taldearen antxinatasuna	15 puntura arte
3 urte arte	3
4 eta 10 urtera arte	6
11 eta 15 urtera arte	9
16 eta 25 urtera arte	12
25 urtetik gora	15

Jai Batzordean parte hartzea	10 puntu
Bai	10

Esperientzia, aurretik egindako ekitaldi kopurua	15 puntura arte
3 edizinora arte	3
6 edizinora arte	6
9 edizinora arte	9
12 edizinora arte	12
13 edizinotik gora	15

Ekintza edo programa herriko alkarteekaz lankidetzan antolatzen bada	10 puntu

Ekintzaren hartzaile kopurua aurreko urtean	15 puntura arte
100 pertsona arte	4
300 pertsona arte	8
500 pertsona arte	12
500 pertsonatik gora	15

Euskeraren erabilera	20 puntura arte
Ahozko erabilera	12
Idatzizko erabilera	8

Udal dirulaguntzaz gain, finantzazino iturriak lortzeko ahalegina	15 puntura arte
Aurrekontuaren %5a eta %20 arte	8
Aurrekontuaren %20a baino gehiago	15

ESKATZAILEAK:

Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz:
a) Irabazi asmo bakoak izatea.
b) Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea.
c) Egoitzea Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea. Egoitzea Bermeotik kanpo badauka, baina ekintza bat Bermeon proposatzen badau eta interesgarritzat joten bada, aztertu egingo litzateke.
d) Bermeoko Udalak aurretik emondako diru-laguntzen justifikazinoak behar diran moduan eta egunean izatea.
e) Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
f) Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan.

DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:

Arlo honetan diru-laguntzak jaso daikiezan kontzeptuak dira: jai ekitaldiak, musika saioak, kultura arloko saioak, umeentzako ekitaldiak, azpiegitura, kaleak apaintzeko apaingarriak eta jaia girotzeko beharrizanak, publizidadea, oroigarriak eta sariak. Baita, kulturartekotasuna bultzatzeko jarduerak eta programak.
Diruz lagundutako programagaz lotura zuzena daben katerin eta ordezkaritza-gastuak justifikatzeko orduan, gastu horiek, gehienez be, programaren kostuaren %10 izango dira, salbu programaren batek justifikatzen badau kopuru handiagoa, eta beti be, %25 baino gitxiago bada.

PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Diru-laguntzak emoteko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.
Dirulaguntza eskaria III. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo betetu ondoren.

a) IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada)
b) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo Udalari emon baimena ziurtatzeko)
c) 2018 urteko proiektuak, jagokon eranskinean zehaztuta. (III)
d) Alkarteko estatutuen fotokopiak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta

Hezkuntza Sailean.

Akatsak zuzentzeko epea

Dirulaguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

Diru-laguntzak emoteko prozedura

- Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakiokeen erregimena hau da:konkurrentzia lehiakorran prorrata.
- Prorrata danean, aurkeztu diran eskari guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazino guztia, salbuespenakaz, kontutan hartuta, modalitatearen arabera, lortutako puntuazinoa, moduloak edo esleipen finkoa.
- Prorrata sistemaren bidez emongo dira, puntuazinoaren arabera, honako salbuespen honegaz: 800 € arteko aurrekontua daukan programak eta 50 puntutik gora lortzen badau, aurrekontuaren %100a eskuratuko dau, esleipen finkoagaz.
- Eskatzaile batek ezin izango dau 11.000 € baino gehiagorik jaso.
- Diru-laguntzearen zenbatekoa honako hau izango da, gehienez be: aurrekontuaren %100 arte.
- Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko.

Diru-laguntzak ordaintzea

Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz. Diru-laguntzearen %80a programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta diru-laguntzearen beste %20a, ekintzea justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak justifikazinoagaz batera berrikusiko dirala. Diru-laguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan.

Udalak justifikazinoa ondo aztertu dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso.

Desadostasunik balego, Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko leuke.

Diru-laguntzearen onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri.
2. Udalari jakinarazotea beste diru-laguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

Diru-laguntzearen justifikazinoa

1.Diru-laguntzearen onuradunak 2018. urteko diru-laguntzearen justifikazinoa egin beharko dau Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, diruz-lagundutako ekintzea egin eta hiru hilabeteko epean, epe muga 2019ko urtarrilaren 11a izanik.

2.Justifikazinorik egiten ez denean edo egindako justifikazinoa nahikoa ez denean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da berandutzako interesakaz batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.artikuluko 1.idatz-zatian dagoan moduan.

3.Ebaluazino-memoria IV. eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazinoa eta balantze ekonomiko osoa.

4. Erabilitako publizidadea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.

ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	169.- Eskaria - Kultura eta jai jardue	167.- Justifikazioa - Kultura eta jai jardue

2018. URTEKO BERMEOKO KALEETAKO JAIAK FINANTZIATZEKO PROGRAMA

IN-E 180/02-17

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
INSTRUKTOREA:	Susana Regidor (Kulturako teknikari-koordinatzailea)
BALORAZIO BATZORDEA:	Kultura eta Hezkuntza Batzordea
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	2018 urteko Bermeoko kaleetako jaiak ospatzeko, batez be, tradiziozko jaiak eta herritarren arteko bizikidetza bultzatzeko finantziatzeko programa
KODEA:	KU12-2
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	5.000 € (00400-33810-481.03.07)
HELBURUA:	Udalaren 5.3 helburu estrategikoa dan “talde sozial eta kulturalen ekimenak bultzatu” garatzeko, dirulaguntza hau Bermeoko kaleetako jaiak ospatzeko, batez be, tradiziozko jaiak eta herritarren arteko bizikidetza bultzatzeko izango dira.
EPEA:	Eskariak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan hurrengo egunetik 10 egun naturalen epean izango da.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	

Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dagozan ekitaldiak eta jaiak badira	30 puntura arte
2 urtera arte 3 urtetik 14 urtera arte 15 urte baino gehiago	5 15 30

Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan daben herritarren parte-hartzea	20 puntu
300 pertsona arte 300 pertsonatik gora	10 20

Programatutako ekitaldietan euskerearen erabilerea	20 puntu arte
Ahozkoa Idatzizkoa	12 8

Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoekaz, helburuekaz eta irizpideekaz bat etortzea.	10 puntu

	<table><tr><td>Programaren interesa eta aniztasuna</td><td>10 puntura arte</td></tr><tr><td>Umeentzako ekitaldiak Nagusientzako ekitaldiak</td><td>5 5</td></tr></table> <table><tr><td>Beste finantzazino iturri batzuk</td><td>10 puntura arte</td></tr><tr><td>Aurrekontuaren %5etik %20ra arte Aurrekontuaren %20a baino lehenago</td><td>5 10</td></tr></table>
ESKATZAILEAK:	a) Pertsona fisikoak eskatu ahal izango dau honeek baldintzak beteten badauz: kaleko auzokide bat izatea, bere kaleko jai batzordearen izenean. Horretarako, ordezkaritza justifikatzen dauan dokumentu bat aurkeztuko dau, auzokideen sinadurekaz. b) Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango dauz, honeek baldintzak beteten badauz: b.1.- Irabazi asmo bakoak izatea. b.2.- Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan sartuta egotea. b.3.- Egoitzea Bermeon eukitea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan garatzea. b.4.- Diru-laguntzea eskatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau. b.5.- Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan. c) Kasu bietan, Bermeoko Udalak aurreko urtean diru-laguntzaren bat emon badeutso, diru-laguntza horren kontra egindako gastua, ondo justifikatuta eukitea. d) Kale bardineko eskaera bat baino gehiago jasoten bada, udalak bakar bat onartuko dau.
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	Arlo honetako dirulaguntzak emongo dira honako gastu honeek finantzatzeko: musika saioak, kultura arloko saioak, umeentzako ekitaldiak, azpiegitura, kaleak apaintzeko apaingarriak eta jaia girotzeko beharrizanak, publizidadea, oroigarriak eta sariak. Jatorduak onartuko dira, beti be, aurrekontu osoaren % 25a baino gitxiago bada.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra izango da. a) Pertsona fisikoen kasuan, eskatzailearen ordezkaritza frogatzen dauan dokumentua aurkeztu behar da b) Pertsona juridikoen kasuan, dokumentu honeek aurkeztu behar dira: b.1.- IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada). b.2.- Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen egiaztagiriak. (Edo udalari baimena emon ziurtatzeko) b.3.- 2018 urteko proiektua, jagokon eranskinean zehaztuta. (I) b.4.- Alkarteko estatutuen fotokopiak, eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean. c) Kasu bietan, dirulaguntza eskaria V. eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo betetu ondoren. **<u>Akatsak zuzentzeko epea</u>** Dirulaguntza eskariak ez badauz eskatutako agiri guztiak formalizetan, interesdunak 10 egun eukiko dauz akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen danetik kontatzen hasita. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da. **<u>Diru-laguntzak emoteko prozedura</u>** • Dirulaguntza mota honeri aplikatu dakiokeen erregimena hau da: norgehiagoka. • Norgehiagoka sistema erabiliko da, behin gitxieneko diru-kopurua lortuta, diru kopuru hori programa bakoitxean lortutako puntuazioari jagokon porzentajea aplikatuta doituko da, taula honetan adierazita dagoen eran:

Programari emondako puntuak	Dirulaguntzaren %
86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren %100
71etik 85 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 90
30etik 70 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 80

- Eskatzaile batek ezin izango dau 2.500 € baino gehiagorik jaso.
- Aurkeztutako proposamenek gitxienez, 30 puntu lortu beharko dabe dirulaguntza bat jasotzeko.

Diru-laguntzak ordaintzea

Bermeoko Udalak aurretiko ordainketak egingo dauz. Diru-laguntzearen %80a programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta diru-laguntzearen beste %20a, ekintzea justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emondako kopuruak, justifikazinoagaz batera berrikusiko dirala. Diru-laguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturakaz justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan.
Udalak justifikazinoa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, dirua itzultzeko eskatuko deutso.

Desadostasunik balego, Kultura eta Hezkuntza batzordeak aztertuko leuke.

Diru-laguntzearen onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormatan be, ezin izango da kartelik jarri.
2. Udalari jakinarazotea beste diru-laguntza batzuk hartzen badauz eta honen zenbatekoa (danen artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

Diru-laguntzearen justifikazinoa

1. Diru-laguntzearen onuradunak 2018. urteko diru-laguntzearen justifikazinoa egin beharko dau, Berhaz bulegoan edo Kultura eta Hezkuntza Sailean, Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen dan moduan, jaia egin eta hiru hileko epean. Urritik aurrera egiten diran ekimenen kasuan, epe mugea 2019ko urtarrilaren 11a izango da.
2. Justifikazioa egiten ez denean edo egindakoa nahiko ez denean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da berandutzeko interesakaz batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.artikuluko 1.idatz-zatian dagoan moduan.
3. Ebaluazino-memoria, VI. eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, partehartzaileak, balorazinoa eta balantze ekonomiko osoa jasota.
4. Erabilitako publizidadea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.

ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:

168.- Eskaria - Kaleak (V. eranskina).

170.- Justifikazioa - Kaleak (VI. eranskina)

BERMEOKO AUZOETAKO JAIAK FINANTZATZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/01-18

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	**LUGINTZA SAILA**
INSTRUKTOREA:	AMAIA ELORZA
BALORAZIO BATZORDEA:	Lugintza Batzordea

<table>
<tr><td>DIRU-LAGUNTZA ARLOA:</td><td>2018 urteko Bermeoko auzoetako jaiak finantzatzeko diru laguntzen programa</td></tr>
<tr><td>KODEA:</td><td></td></tr>
<tr><td>AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:</td><td>34.900,00 €. PARTIDA 00900-33830-4810303</td></tr>
<tr><td>HELBURUA:</td><td>• Tradiziozko auzoetako jaiak bultzatu
• Auzotarren arteko bizikidetza bultzatu
• Bermeoko auzoen artean harremanak sendotu
• Herriari ezagutzera eman auzoak eta euren ohiturak</td></tr>
<tr><td>EPEA:</td><td>Eskariak aurkezteko epea, jaiak ospatu baino <u>hilabete</u> arinago izango da.</td></tr>
<tr><td>BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:</td><td>
<table>
<tr><td>Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira izaera tradizionala, herrikoia eta herrian sustraituta dauden ekitaldiak eta jaiak badira</td><td>30 puntu arte</td></tr>
<tr><td>2 urte arte
3 urtetik 14 urtera arte
15 urte baino gehiago</td><td>5
15
30</td></tr>
</table>
<table>
<tr><td>Programatutako ekitaldiek aurreko urtean izan duten herritarren parte-hartzea</td><td>10 puntu</td></tr>
<tr><td>300 pertsona arte
300 pertsonatik gora</td><td>10
20</td></tr>
</table>
<table>
<tr><td>Programatutako ekitaldietan euskararen erabilera</td><td>15 puntu arte</td></tr>
<tr><td>Idatziz
Idatziz eta ahoz</td><td>10
20</td></tr>
</table>
<table>
<tr><td>Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoekin, helburuekin eta irizpideekin bat etortzea eta euskal kulturaren ekitaldia izatea</td><td>10 puntu</td></tr>
</table>
<table>
<tr><td>Programaren interesa eta aniztasuna</td><td>10 puntu arte</td></tr>
<tr><td>Umeentzako ekitaldiak
Nagusientzako ekitaldiak</td><td>5
5</td></tr>
</table>
<table>
<tr><td>Beste finantzaketa iturri batzuk</td><td>10 puntu arte</td></tr>
<tr><td>Aurrekontuaren %5etik %20ra arte
Aurrekontuaren %20a baino lehenago</td><td>5
5</td></tr>
</table>
</td></tr>
<tr><td>ESKATZAILEAK:</td><td>Pertsona fisikoak eskatu ahal izango ditu, honeek baldintzak betetzen baditu:

Auzoko alkatea izatea.</td></tr>
<tr><td>DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:</td><td>Arlo honetako diru laguntzak emango dira honako gastu honeek finantzatzeko: musika saioak, kultura arloko saioak, kirol saioak, umeentzako ekitaldiak, azpiegitura, kaleak apaintzeko apaingarriak eta jaia girotzeko beharrizanak, publizitatea, oroigarriak eta sariak. Jatorduak onartuko dira, beti be, aurrekontu osoaren % 25a baino gutxiago bada.</td></tr>
<tr><td>PROZEDURA ETA</td><td>Diru laguntza eskaria 194 eranskinean aurkeztuko da, datu guztiak ondo bete ondoren eta 193 eranskina ondo beteta.</td></tr>
</table>

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru laguntza mota hauei aplikatu dakiokeen erregimena hau da: KONKURRENTZIA LEHIAKORRA NORGEHIAGOKA.

Norgehiagoka sistema erabiliko da, behin gutxieneko diru-kopurua lortuta, diru kopuru hori programa bakoitzean lortutako puntuazioari dagokion portzentaia aplikatuta doituko da, taula honetan adierazita dagoen eran:

Programari emandako puntuak	Diru laguntzaren %
86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren %100
71etik 85 puntu bitartean	Aurrekontuaren % 90
30etik 70 puntu bitartean	Aurrekontuaren % 80

1. Eskatzaile batek ezin izango du diru-partidaren % 15a baino gehiagorik jaso.

2. Diru laguntzak emateko, norgehiagoka sistema erabiliko da, behin gutxieneko diru-kopurua lortuta, diru-kopuru hori programa bakoitzean lortutako puntuazioari dagokion portzentaia aplikatuta doituko da, taula honetan adierazita dagoen eran:

3. Aurkeztutako proposamenek **gutxienez, 30 puntu** lortu beharko dute diru laguntza bat jasotzeko.

Diru-laguntzak ordaintzea

Bermeoko Udalak diru-laguntzak ordaintzeko, aurretiko ordainketak egingo ditu. Diru-laguntzearen %80a, programa osoa burutu baino lehen ordainduko da eta diru-laguntzearen beste %20a, ekintza justifikatzen danean. Kontuan izan behar da, emandako kopuruak, justifikazioarekin batera berrikusiko direla. Diru-laguntzea ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen dan aurrekontuaren %100a fakturekin justifikatu behar da, nahiz eta diru-laguntzearen kopurua txikiagoa izan.Udalak justifikazinoa ondo aztertuko dau eta halan bajagoko, diru-laguntzaren %20a, hau da, azken zatia ordainduko dau. Bestela, aurkeztutako justifikazinoari jagokon benetako diru-laguntza zein dan taldeari azalduko jako eta beharrezkoa balitz, diru itzultzeko eskatuko deutso. Desadostasunik balego, Lugintza batzordeak aztertuko luke.

Diru-laguntzearen justifikazioa

1. Diru-laguntzearen onuradunak 2018. urteko diru-laguntzearen justifikazioa egin beharko du, Bermeoko Udaleko Berhaz bulegoan Bermeoko Udaleko dirulaguntzen oinarri orokorren 17.artikuluan jasotzen den moduan, diruz-lagundutako ekintza egin eta hiru hilabeteko epean. Edozein kasutan, 2019ko urtarrilaren 13a izango da.
2. Justifikazinoa egiten ez denean edo egindako justifikazinoa nahikoa ez danean, jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko da berandutzeko interesakaz batera, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.artikuluko 1.idatz-zatian dagoen moduan.

3. Ebaluazio-memoria 193. eranskina ondo beteta: egindako ekintzen garapena, parte hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa.

4. Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak. (Udaleko Berhaz bulegoan egiten dira). Egiaztapena egin eta gero, originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horiek ez badute balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko.

   - Fakturetan nahitaez enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia,

	data, kontzeptua, talde eroslearen datuak, zenbatekoa eta BEZ azaldu beharko dira. - **Tiketak** onartuko dira, beti be, datuak zehaturik agertzen badira eta **justifikazio osoaren %25a baino ez badira**. Autopistako tiketak garraio publikoko tiketak, aparkalekuetako tiketak onartuko dira baldin eta aurkeztutakoak helburuarekin bat datozenean. - Egindako publizitatearen kopiak: programak, kartelak, argazkiak edo beste dokumentu grafiko baten ereduren bat, urtean zehar ez badute aurkeztu. Horietan **Bermeoko Udaleko logoa** agertu beharko da. - Diru-laguntzarekin egin beharreko programa ez burutzeak edo diru-laguntzea ez justifikatzeak aurreko dokumentazioaren arabera, edo epez kanpo justifikatzeak diru-laguntzea galtzea suposatuko du, ordaindutako kopuruen itzulketarekin, gehiengoz 30 eguneko epean.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	